

# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Zintzo jokatzeari



Aritz Galarraga



### **Aberriaren alde (eta kontra)**

RAMON SAIZARBITORIA

Alberdania, 1999

Euskal literaturan nobelagile gisa da ezaguna Ramon Saizarbitoria. Hori gogoratzen digu hegalean eskuartearen dugun liburua, orotariko saiakera laburrak biltzen dituen bilduma batean argitaratu zenak. Liburu arraroa da, beraz, idazlearen bibliografian bederen: 1970eko *Mendebaleko ekonomia-aren historia* hartatik ez baitu saiorik egin; gerora ere ez, guk dakigula, ez behintzat berak bakarrik sinatutakorik. Eta ekonomia kontuak urrun, idazlea kezkatzen duten gure errealitate soziokulturalaren alderdi zenbait larrutzen dira *Aberriaren alde (eta kontra)* honetan. Zenbait, ugari, baina harritu naute euskararen inguruan ari direlako horietako ez gutxi. Felipe Juaristik bazekien, eta ez zuen liburua irakurtzeko batere asmorik: “gogait gaizto egina bainago euskarari buruzko eta euskararen inguruko gaiei buruzko eztabaidez. Egiago esatera, euskararen gaintetik nabil aspaldi honetan, aingeruak bezala hegan”. Eskerrak tarteka oinak lurrean izaten ditugun.

Bai, ze, euskararen inguruak izango dira hemen larrutzen diren alderdietako ez gutxi –“geure egoera zehatzari ahalik eta estuen egokitutako konponbideak aurkitzeko gai izan beharko ginateke”–, literatura-ri buruzkoak beste batzuk –“ez dut uste hobe den irakurtzea, edozer gauza irakurtzea, eta azken finean, gauza txar bat irakurtzea, telezabarra ikustea baino”– eta, tituluari men eginez, abertzaletasunaren gainekoak ere badaude –“gure nazionalismoak okerrera egin du, kultura menderatu baten defentsatik, ezaugarri etnizistak

erakusteraino”–. Mutur bateko zein beste-koei haserrea pitz diezaioketen kontuak; ez, bereziki, idazlea erdian jarri zale delako, ez ekidistantziagatik, ez bada fatalitate hutsagatik, “kontrakoari neurri bereko alderdi positiboak ikusi gabe egitea” eragozten dion halabeharagatik. Ezin kontu guztiekin bat etorri, hartara. Markos Zapiainek esan zuen, 2000ko kritika batean: “Ezinezkoa da Saizarbitoriarekin erabat ados egotea, baina ezinezkoa da halaber punturen batean bederen bat ez etortzea”. Kontu guztiak dira, ordea, eztabaida pizgarri. Eta, azkeneko, esango nuke hausnarketek eurek bezainbat erakarri nautela hausnarketak plazaratzeko moduak, gogoak, jarrerak. Nire ustean esaldi honetan laburbiltzen direnak: “Geure buruarekin zintzo jokatzeari; hori da, beraz, kontsigna”.

Idazlearen bibliografian arraroa den liburu hau argitaratu zen bildumaz, *Zerberri* sailaz, zer esan: faltan dudala, hitz-jario neurrigabea nagusi den garaiotan, berritsukeria gailendu den sasoiaren, ehun orrialderen bueltan gogoeta egiten duten liburu patxadatsu, jakingarri, eskurakoak. Saizarbitoriaren pieza bakan honen gisakoak. ■

